TTiPi-TTAPA

BAZTAN / BIDASOA / MALDA ERREKAko

aldizkaria

1984'ko abendua 10. zenb.

GELDITZEN DIREN, ETA ONGI BUKATZEN UZTEN DIGUTEN.
AH!! HOR DIRA BERRIRO ALU HORIEK
EXTRAZIGIKEZ
BAI, BAINAN JARRAI DEZAGUN BORROKAN!!!

NON-ZER

3.12, BERRIAK
14 ORAIN EKOLOGIA BIHAR ZERRILOGIA
16 GRIPEA
17 ZERGATIK.?
18 NEUROSIA ETA PERBERTSIOA.
22 BORDARIEI
26 ZURE TRISTURA NABARI DUT.
27 EXTRADIZIOAK
28 KAIXO JUAN
32 BERTSOAK
34 EHIZA, DEBEKATU BIHAR LITZAKEEN KIROLA.
36 OLERKIA.
37 EGUNEROKO TORTURA.
38 HARRO HARRO SENTITU NINTZEN.
39 HERRI KOXKOR HALUETAKO BESTAK.
40 KOMIKIAK.
41 NATURAREN ONDASUNA ARANTZAN
42 DESPISTATU BATEN BUELTATXOA.

HELBIDEA:- "EUSKALDUNA" OSTATUA - BERA -

HERRI BAT HIL NAHI DUTE

AZAROAREN 18an. CHRISTIAN OLAZKUAGA

AZAROAREN 20ean. SANTI BROUARD

AZAROAREN 23an. PABLO GONZALEZ

IGANTZI

Yanci City Ciudad sin Ley

Zer da Igantzi? Galdera honi edozeinek erantzuna ematen al dio: Herri txiki bat da, etxe batzuk plazan, Berrizaun auzoa (Ventas), beste etxe batzuk eta gero baserri multzo bat. Hortik aparte beste dena mendia da. Mendia! hori da gure historioa.

Igantziko mendietan badira zuhaitz batzuk (pinua, aritza, gaztaina e.a.) baina gehiena iratzeaz betea dago.

Iratze horrekin orain baditugu problemak.

Orain dela aunitz urte, udaletxeak, baserri edo etxe bakoitzari ematen zion iratze pixko bat, bere haziendantzat, zeren ez zegoen beste bizi modurik. Udaletxeak ez zion lurraren propietatea ematen, iratzearen probetxua baizik.

Zer gertatu zen orduan? Baserriko nagusiak (betire herriko jauntxoak), herriko jendeari baserriak saltzen hasi ziren, baina baita ere saltzen zuten herriak utzitako iratzia, eta gainera eskrituratan sartua.

Orain gertatzen dena da, baserritarrak esaten dutela iratzeko terreno horiek bereak direla. Kontatu behar dizuet azken kasua.

Irazelaia batean herriak plantatu zituen orain dela berrogi urte, ehun urtez amerikanoak. Oraindik bizi dira; toki hortan auzolanean arbolak sartzen ibili ziren, herritar aunitz.

Baina, zer gertatu da? Orain baserritar batek terrenua berea dela esaten du, eta arbolak ere bai, eta hauek botatzeko permisua udaletxeari eskatu dio.

Udaletxeak arbolak herriarenak direla eta terrenoa oraindik garbia ez dagoela zeinena den erantzun dio.

Kasu hau ostirala bateko plenoan gertatu zen. Larunbata goizean, baserritarrak «motosierra» hartu zuen eta arbola guztiak bota zituen, eta gainera serrategi bateri, arbolak saldu zizkion.

Igantzi ikusgarria da!.

«Sheriff» bat jarri beharko dugu.

Euskara edo lotsa

Igantzin gertatzen ari diren gauzak, ezin sinestekoak dira.

Azkeneko hamar urte hauetan badaukagu ikastola txiki bat, hiru urtetik seigarren urte arte haur guztiak ikastolara joaten dira. Seigarren urtean, erdarazko eskolara pasatzen ziren, beren problemakin edo «traumak» dena erderaz egiten zutelako.

Oraino dela bi urte, Igantzi hasi zen «plan de bilingüismo» deitzen zaio programa. Maisua lehendabiziko taldekin hasi zen euskera ematen egun guztia, eta beste taldeari ematen zion ordu bat.

Baina ez dakigu zergatik, guraso multzo bat bildu zen euskararen kontra, esanaz haurrak erderaz ikasi behar zutela, zeren bestela herritik ezin zirela atera, haiek lotsa haundiak pasatu zutela Donostiara edo Irunera joaten zirenean eta ez zutela nahi gauza bera beren haurrarentzat.

Gauza ikusgarria da, guraso hauek egondu dira hiru urte haurrak ikastolara bidaltzen, hilabetero kuota bat ordaintzen. Bestatan izugarrizko izerdiak ateratzen lanean, ikastolaren alde jartzen den ostatuan e.a.

Nola ulertzen ahal da hau?; hiru urte euskararen alde lanean eta orain euskararen aurka. Zer mentalizazio euskalduna dago gure herrian, zenbat arpegi dituzte guraso hauek, urte batetik bestera hola aldatzeko.

NIK EZ DAKIT.

Zorionez eskolako programak berdin segitzen du eta orain hiru lehenbiziko maileta euskara ematen dute.

ASTERIX

BAZTAN

PIEROLARI OMENALDIA.- Baztango Ikastolak eta C.D.B. elkarteak, pelotari berezia izan den Pierola baztandarri omenaldi eder bar eskaini zioten. Ikastolak, "euskal makila" eder eta sendo bat eskaini zion;/ Ikastolako elkartearen buru den,/ Gregorio Ruiz de Larrinagaren eskutik bildu zuen makila hau, eta/ Juanjo Atxa, almandoztarra, C.D.B. elkartean pilota eramaten duenatik bildu zuen elkarteak baita ere egin zion domina berezia. Elias bete zen, Baztango pilotari gazteek inguratu zutenean. Bitartean Baztango pilota lekua betetzen zuen jendeak txaloka eta zutik agurtzen zuen bere bi euskaldunen ezaugarriak: Mintzoa eta pilota. Baztandarrek, omenaldi honetan biek lotu zituzten, Ikastola/ eta kirol elkartearen bitartez.



EGUNEROKO TORTURA

TORTURAK JARRAITZEN DUTE KOARTELILO ETA KOMISARIETAN.

Duela egun batzuk, «Amnesty Internacional» delako erakundeak urtero bezala giza eskubideari buruz egiten duen txostena aurkeztu zuen.

Txoten honek adierazten duenez torturatzen jarraitzen da estatu espainolean. Hiru edo lau kasu agertzen ditu. Baita ehundaka atxiloketa salatzen ditu gehienak Euskal Herrian izanak.

Euskaldunok erakunde honen beharrik ez dugu jakiteko poliziek eta goardia zibilek torturatzen jarraitzen dutela zeren eta oso hurbil ikusten bait dugu aldiro. Zeinek ez du familikoren bat edo lagunen bat torturatua edo atxilotua izan ez dena?.

Gobernu espainolean dauden buruzagiek, guretzat haitz argi dagoen gauza bat behin eta berriz ukatzen dute

Egon leikela kasu isladaturen bat esaten dute baina ez dela sistematikoki toruratzen.

Gizon hauek sobera dakite komisarietan torturatzen dela, zeren eta Frankoren denborako torturatzaile guztiak lehengo karguetan jarraitzen baitute eta asko izan dira orduz gero kargu haundiagoak dauzkatenak.

Gainera badakite torturatzeko sistemak berriak ezarri dituztela eta beraiek ere izan dutela parte asunto honetan.

Beste aldetik beren «parlamentu demokratiko» hortan, tortura aurrera eramaten laguntzen duten hainbat lege onartu dituzte. Hor dago hauen tartean «lege antiterrorista». Lege honek poliziari eskubidea ematen dio atxilotuak hamar egunez beren eskuetan inkomunikaturik edukitzeko. Zertarako eduki behar ditu hamar egunez han sartuta?. Ziur aski atxilotuei «demokraziazko» klaseak emateko.

zagiek

BERTSOLARIEN ELKARTEA.- Bertsolari eta bere lagun batzuk, nora eta nola doazen ikusiz azterketa txiki bat egiteko, Elizondon bildu ziren. Bertan, azken txapelketako gorabeherak jakinerazi zituzten, nola diru hala antolaketa aldetik. Bilera hortan Nafarroako bertsolarien Elkartea sortu zela jakin genuen. Mariano Izeta buru aukeratua izan zen eta Lorenzo Aburuza/idazlari; Eujenio Arraiza, Dionisio Mujika eta Joxe Fermin Arginarena laguntzaileak berriztik. Ipar Nafarroatik, Alkat eta Laka. Elkarte honek zera dauka bere gogoan: Bertsolaritzari bultza berri bat ematea, halere inguruan daukagu kultur guztiari, eta instituzio aldetik beharrezkoak diren laguntzak lortzea.

Trinkete Antxitonean bildu ziren guztioi gure agurra eta baita ere gure asmo hau: Baztan-Bidasoako herrietan luzaro jarrai dezaten bere bertso ederrekin.

AZKEN ORDUA.- Elizondoko karriketan papertxo batzu/hedatu dituzte. Gauaz eta behar den hizkuntzan. Horrela diote: "J.Iturralde, eres un macho. Arriba España". Lehendik, Baztango Alkateak nondik den maingu jakinazen eta orain zer erran ez dago./ Orain betiko "zakurkeria" galdu egin dute; Baztango etxeetan bere botua bila agertzen direnean... Baina zakurkeriak salatzeko, ez dago deus hoberik txakurrak laxo/uztea baino.

ARANTZA

ASTAKERI GOGORRAK

Lehengo astelehenean eguardiko/1,19etan, jendea eulia bezala zebilela Arantzako kale nagusian, gertatu zen atentatu hau: "Caja Rural" berriro irekia da Arantzan, eta jendeak etxean zeuzkan sos pizarrak hartu eta laisterka han sartzera, interes hobeak hartzeko itxaropenean.

Horrela gauza, Barttolo jauna, nekazaria bizi guztian, denen lagun jatorra, hortik pasa zen mementu hartan bere "Raty" astoa eta lera bat bazkakin.

"092" berebil "zeta" bateko sargentorekin solastu zen. Orduntxe goitik behera "cadillac" beltz bat, gutxienez orduko 100 kilometroko ziztuan heldu zena, kolpean geldi-tu zen eta aurpegia tapaturik, lau mutil atera ziren.Lau edo bost tiro egin ondoren sartu ziren atetik barrura, baina uste gabean "Caja Rural"ean sartu beharrean, elizam/sartu ziren. Elizatik atera ordukoo "zeta"berebilkoak hurbilduz, detenitu nahizik zebiltzan. Gazte batek tiro bat bota eta sarjentoari/bibotea moztu zion zol-zoletik. Berebilan sartu eta kristoren martxan abiatu ziren, baina nondik eta Barttoloren lera karrikaren erdi erdian eta terroristak jo ta gurpilez goitik gelditu ziren.

Orain gartzelan daude, egunkarietan ETAkoak zirela esan zuten baina KGBko bati baita neonazik direla atera diogu.

Dena dela ikara ederra pasatu zuten han zirenek. Orain Udalak Barttolori astoen klinikako gastoak eta lera berri bat ordainduko dizkio.

KIROLA. Ostoloko pinudegi ondoko futbol zelaian lehengo igandean jokatu zuten partidu emozionagarri bat, PUNTEROS F. KLUBekoek eta NOTHINGHAMekoek. Ez dakizuenentzat, zelaiak Tartailborda du izena.

Beno, 6-3 etxekoen alde gelditu/zen markadorea. Horregatik PUNTEROSkoek baratxuri trofeoa irabazi/zuten.

Bi zauritu PUNTEROSkoen aldetik, eta honela: korner bat ateratzerakoan, Prontxiok baloia jo beharrean ondoko harri kozkorra jo zuen eta nola gainera!!; baloia bezala porteri aldera bidaliz, Benito "Mozkorhandik" gure aintzinlari zoragarriak hara non buruarekin errematea ematen dion.

Prontxiok 6 urte eskaiolarekin eta Benitok bizi guztirako kaskorekin ibili beharra.

Arbitroari dutxatik irtetzean zakurra eman zioten baina honek ez du komentarioren beharrik.

Golak: Prontxiok 6. minutuan, Benitok 15.ean, Telesforok 30.ean, 31.ean Paxkaxiok, Joxeleontxok bigarren erdiko 20. segunduan (harrubikoa bera eta 67 urtekoa). NOTHINGHAMekoek, Roberrek 3 gol eta Bartolok bestea baina bere atera sartu zuen (ateko sake batean). Hemen ez dugu grebarik ez bait dira AFEkoek, hemen HTEkoak.

ARANTZAKO HERRIA orain dela urte batzuk "Plan de bilingüismo" delakoa eskatzen hasi zen Diputazioari Zergatik eskatu zen elebitasunerako plan hau?.

Ba arazo garbi batengatik: ikastolatik atera eta hurrengo maila erdaraz egitean, handik urte batzutara zer nolako desastreak ateratzen ziren ikusten bait zen.

Orain dela lau urte gutti gora behera, Arantzan 5. maila elebiduna izatea lortu genuen, baina arazoa oraindik ez zen konpondua, 2. etapak erdaraz berehala jarraitzen bait zuen. Noizbait Diputazioari gogoratu zaio 2. etapa hori ere elebiduna izatea. Azkenean lortu da. Arantzako haurrak ez dira goizeko zazpiretan jeiki behar izanen Berara/aldera joateko. Honekin haurren errendimendua askoz hobea izanen dela eta eskolan porrot guttiago izanen dela uste dugu.

Horregatik 6. mailakoak aurten ia ez dira Berara joanen, beraz garai/berri bat hasi da, irakasle berri bat etorri da eta hurrengo urterako beste irakasle bat bidaliko dute 7. maila egiteko eta hurrengoan beste bat 8. mailakoentzat.

Azkenean Arantzatar guraso eta irakasleen borrokak irabazi du.

Hemendik aurrera gure herriko haurrek bi hizkuntza menperatuko dituzte, erdara eta euskara eta ez lehen bezala, ez bata eta ez beste.



BERA

MATZADA INGURUKO BIZILAGUNEK, erreka karrakatzea nahi dute. Udalari egin diote eskaria eta Udalak, horretarako kamioiak bide partikularretan ibili beharko dutela eta/ behar diren baimenak eskatzea erabaki du. Baita erabakia hartu da, Matzada inguruetako bizilagunei erreka bazterretako traba egiten duten zuhaitzak botatzeko erratea, lehendik errekazainarekin mintzatuta.

EZTANDA. Urriaren 15ean, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udala plenoan bildurik zegoelarik, sekulako eztanda sumatu zen, herriko etxeak dar-dar egin zuelarik. Zinegotziak ikaratu ziren, iluna baitzen eta ez ordu egokia harrobikoa/ izateko. Telefonoz aritu ziren honat-harat deika eta inon etzela ezer makurrarik ikusten, erantzuten zieten. Azkenean guardiazibilek argitu zuten kontua, erranez orduntxe patruila ailegatzen zela. Eztanda hauek, gure herriari kaltte besterik egiten ez diotelako, lerro hauetatik gure salaketa gogorrena adierazi nahi dugu.

AKELARRE TALDEAK Berara etorri nahi duela eta Udalari proposamena egin dio: pilota lekuan jotzea eta bere hirugarren L.P.aren aurkezpena egitea; 120.000 pezta. eta txarteldegian biltzen dena oso osorik/" eskatzen du, honela baita euriarengatik Berako bestetan izan zituen kalteak moldatzeko; Udalaren/" kontura izango zen baita, Beraren/" inguruetan 30 kilometrotara zabalkunderako kartelak paratzea, baita behar den solairu eta argi indarra prestatzea. Udala diru proposamenekin ez bertzerik, bertzeekinados dago: 105.000 pezta. eta txarteldegiaren erdia aski dutela baitdio. Akordio batera ailegatzekotan, sarrera 250 pezta kobratzea pentsatzen da.

DIPUTAZIOATIK BETI DIRUAREN ESPERUAN, bankuekin ia-ia 30.000.000 - pezten. zorretan sartu da Udala. Denbora urrea baita, urtean ehunetik 15,5 behar ditu ordaindu, - interesengatik.

LAPURKETAK.- Egunero edozein gauza bezala zabaltzen/ari dire. Urrian, Berako Fabrika/zaharrean, lapurrek soldagailu batekin, diruaren kutxa ideki zuten. Barrenean dokumentuak aurkitu zituzten, baina ez zegoen dirurik./ ALCO-n azken bolada honetan bi aldiz sartu dire lapurrak. Hemen - plastikoako mobleak, bozgarailuak eta josteko makina bat eraman zituzten.

LIZUNIAGA 2. KROSSA.- Lasa, Irundarrak irabazi zuen. Jende aunitzek parte - hartu zuen, eta adin guztietakoak gainera; jendea trebea benetan. - Lesakar bat 3. ailetu zen: Jesus/ Mª Calvo., 4. berriz Juan Manuel - Irazoki, beratarra. Xabier El- - tzaurdia, Bautista Telletxea eta/ bertze hainbat beratarrek, parte/ hartu zutelarik, marka on batzu - egiteko gauza direla adierazi zuten.

1.118 ZUHAITZ bota dire azken hiru urte hauetan Berako mendietan, ehunaka egur loteetan. Garro zinegotziak erraten zuen, zuhaitzak berritzeko, zu- - haitz zaharren azpiko lurra harrotzea gonbeni zela, honela haziekin landare berriak sortuko zirela eta zerrakurak egin beharko zirela, landareak ahuntzetik babesteko (Lesakan horrela egin omen - dire). Dena dela, 1985erako egur/ loterik ez ematea erabaki zen.

GURASO ETA HAUR, GUZTIOK MENDIRA.- Joan den ikastaroan bezala, aurten ere Ikastolako gurasoek igandeetan ibilaldiak antolatu dituzte./ Igande batean Baldrunetik Aginara eta Lizuniagako Krossa zen igandean Santa Barbaratik barrena Lizuniagara joan ziren. Honela pixkanaka, pixkanaka gure mendietako txoko eder guztiak ezagutzea eta/ haur eta gazteengan mendizaletasuna bixteko asmoa dute. Hirurogeiren bat haur eta dozenaren bat guraso biltzen dire, azken hauetatik bi, erantzule gisa. Ez da - erran beharrik ibilaldi hok idekiak daudela nahi duen guztiarentzat.

AUPA GURE!!.- Indarrean ari da Gure Txokoako futbol/saila. 15 urte bitartekoak 17 mutil dire gazteen ekipoa osatzen dutenak, Jose Angel Altzuguren - "Kotto" beren entrenatzailearekin. Astean bi entrenamendu egiten dituzte. Erdiko ekipoan, 15 urtetatik 18etara 21 mutil dire. Jose - Mª Eltzaurdia "Kotte" dute entrenatzaile. Astean 3 entrenamendu - egiten dituzte. Zaharrenetan 17 - lagun dire. Felix Unsion beren entrenatzailearen eskutik, astean - 2 aldiz entrenatzen dute. Arazoak ere badituzte eta diruarena bat,/ sosaz murritz ibiltzen baitire, - desplazamenduak direla, etab. - Txarteldegia eta zozketa dute beren diru etorbide bakarra.

GAU ESKOLA.- Herriko Etxeak eta - Diputazioak antolatuta, 16 ikasle 2. mailan eta 14 - laugarrenean, ari dire euskara - ikasten Beran. Etxalarren 13 dire, maila desberdinekoak. Lesakan 15, lehen mailakoak. Donezteben 15, 4. mailakoak eta 14 bigarrenekoak. - Denetatik badire baina batez ere/ langileak eta etxekoandreak dire/ ikastera joaten direnak. Bertze - gaiak ere irakasten dire, nola ingelesa, ebaketa eta jantzigintza, fisiko heziera, sukaldaritza, dietetika, makrame eta informatika - Basic . 381 ikasle dire denetara/ azken gai hauetan. Oharpen bezala erranen dugu, fisiko heziera 141/ ikasleekin eta informatika 47kin/ kurtso jendetsuenak direla. Heldu den Urte Berrietako, sukaldaritzako kurtsoa antolatuko da Beran. - Abel elikadura eta sanitatezko - kurtso bat emateko asmoa bazen - eta jendea gutti zelako ez da hasi. Baita langabezian daudenentzat, mekanika, soldaketa, negutegi eta barrezko kurtsoak antolatzea badago; interesatuek aski dute Herriko etxean edo Jose Mª Irazokiri - aipatzea.

JANARI MERKATARI ETA MANEIATZAILEEK, MINISTRARITZAK AGINDUTA, AZTERKETA EGIN BEHAR.- Lehen mediku aren ezagutza aski zen Sanitateko Ministraritzak ematen zuen karnetaz jabetzeko; orain ez da hori aski, azterketa bat egin behar da. Azterketa errazteko Nafarroako Delegazioak, Beran eta Donezteben mintzaldiak antolatu ditu, azterketa ere bertan egiteko. Europako Ekonomi Elkartearen parera jartzeko, orain dela urte bat neurri hok hartu ziren. Hemendik aintzinera, adibidez, eskoletako sukaldeetara bertan lan egiten dutenak ez bertzerik ezingo dira sartu; sukaldariek buruko ileak estali beharko/dituzte; tabernariek ezingo dute/ile luzerik ibili eta uniformea beharko dute, etab. Urte Berritako Lesakan izango dire mintzaldiak.

GUARDIA CIVIL-EK, BERAKO 8 EHIZTURIEI ESKOPETA KENDU.- Baimena balioa ahitua zutelako edo aitaren baimena ez zuelako (kasu batean) edo postutik kanpo eskopeta zorrotik ateria eramaten zutelako, eskopetak/kendu zizkioten, mendiz mendi, motorrez zebilen "patrulla" batek. Ehizturiek behar ziren gestioak egin ondotik, eskopetak etxera laister ekarri zituzten. Argi ez/dagoena zera da: Postuetatik 100/mt. inguruan eskopeta zorrotik ateria ibiltzen ahal den ala ez./Dena dela, beharrezkoa hauxe da:/arazo hok Diputazioak konpontzea, Estatuak parte hartu gabe.

JAVIER PEREZ DE AZPEITIA AGINAGA-K Musikako Kontserbatorioan, pianoko Katedran laguntzaile postua lortu du. Sei ziren postuaren gai eta lehen ariketa Javierrek bakarrik pasa zuen. Pianoa jo, pedagogia ariketa egin, memoria bat idatzi eta esplikatu eta musika lanak analizatu behar izan zituen./Bera pozik dago, orain lan postu/finkoa baduela eta. Bertze aldetik, Urkorekin jaialdietan jotzen du. Honela bada, arin eta trebegoteko, egunero pianori jo ta ke aritzen da etorkizun oneko beratar hau. AURRERA!!.

soldagailu = soplete.
bozgarailu = altavoz
trebe = ágil
zinegotzi = concejal
zaletasun = afición
erantzule = responsable.
arazo = problema
murritz = corto
txarteldegi = taquilla
zozketa = sorteo
etorbide = recurso
ebaketa eta jantzigintza = corte y confección
fisiko heziera = educación física
sukaldaritza = cocina
jendetsu = concurrido
abel elikadura = alimentación ganadera
langabezi = paro
negutegi = invernadero
antolatu = organizar
maneiatzaile = manipulador
azterketa = exámen
ezagutza = reconocimiento
mintzaldi = charla
Europako Ekonomi Elkarte = Comunidad Económica Europea
sukaldari = cocinero
baimen ahitua = permiso caducado
gai = pretendiente
finko = fijo



SALDIAS



Lehengo urtean eta aurrekoan - ere, tenore honetan Saldiasen esku pilota txapelketa bat antolatzen zuten. Aurten zergatik ez?./ Galdera hau izango dute zenbait - pilotarik buruan. Erantzuna oso - xinplea da, NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOAK NAHI EZ DUELAKO. Joan - den urtean zoro batzuk bezala ibili ginen han eta hemen pilotak eskatzen, baita ere diru laguntzak. Federazioan sartu orduko han egoten zen tipo harek esaten zigun - "ez dago pilotarik". Hau entzun - eta hurrengo astean berriro gauza bera gertatzen zitzaigun, beti - berdin. Ez ziguten inolako elkarrizketarik izatea uzten. Guk bagenekien eta badakigu gezurra dela, Federazioak dirua izan behar/ duela, bestela, non gelditzen da/ pilota partidu haundietatik atera tzen duten dirua? Beraiek sakelak bete eta kitto? Ez al da Federazioaren egin beharra pilotari gazteak bultzatzea?. Horretarako ere badute erantzuna, "bai, guk pilotari gaztei laguntzen diegu, nola uste duzue atera direla hain pilotari onak?", esaten dute serio serio.

Bai, baina, nori laguntzen diote?. Hoberenei, gero probetxu emanen duten pilotariei, noski, eta/ besteek, ez al dute eskubide berdina?

Aurten ere, hasi baino lehen, - saiatu gara, badakizue zer lortu/ dugun? Lau pilota!!! Harrigarria, ez da? Nora goaz horrekin? Zer demontre egin behar dugu lau pilotekin? Horregatik ez gara ausartu,/ azken urte hauetan bezala, Udazkenako txapelketa antolatzea. Beharbada hurrengo urtean edo hemendik bi urtetara, baina eginen dugu, - Federazioaren laguntza edo laguntzarik gabe. Zergatik? Beste kiroletan bezala gazteek laguntza - behar dutelako, eta batez ere Euskal Herriko kirol berezia delako, GUREA DELAKO.

SALDIASKO GAZTE BATZUK.-

DONEZTEBE

E.P.A.-KO IKASTAROAK

Urrian hasi ziren sei ikastaro desberdinak Doneztebeko kontzentrazioan, E.P.A.-k (Educación permanente de adultos) antolatuak izan/ziren.

Egiten ari diren ikastaroak hauek dira: euskara, ingeles, pintura eta marrazki, musika, gimnasia/ eta korte eta korte eta jantzigintza. Ikastaro bat egiteko gutxienez 15 lagun elkartu behar ziren eta ia denetan bildu ziren, gimnasian berriz 40 lagunetik gora. Euskara lehenbiziko eta laugarren mailan bakarrik dago. Donezteben euskera ez dakitenak hainbeste direla ikusita, penagarria da hain jende/gutti biltzea ikastaro honetan.

J. A.

DONEZTEBEKO UDALAK DEITURIK, bilera informagarri bat egin zen azaroaren 14ean. Urdazubi-Zugarramurdi, Malda Erreka eta Bidasoako/zenbait Udala eta sanitario bildu/zirelarik.

Bertan , Nafarroako Osasun Egitamuaren aurreprojektua azaldu zen. Horretaz eztabaidatu ondoren idazki bat egin zen non egitamu honen/orientazio orokorrarekin ados zeudela eta osasunerako koordinadora/(Udalak, sanitariak eta bertze erakundetako partaideek parte hartuz) sortu behar zela adierazi bait zen. Idazki hori, han zeudenak sinatu ondoren Doneztebeko Udala gelditu/zen berriz ere dei egin eta jendea bildu erazteko.

FERIAK

Azaroaren 16an, ostirala, Donezteben Udazkeneko feriak ospatu ziren. Ia bezperatik, saltzaileak herria mugitzen hasi ziren, aunitz etorri bait ziren leku hoberena hartzeko asmorekin eta hortarako lehenbizi etortzen direnak izan zuten preferentzia. Leku edo postu hauek Parrokia kalean, Bordatxo aparkalekuan eta Merkatu Plazan egon behar zuten. Metro lineala 400 pezta ordaindu behar zen Udaletxeari.

Eskerrak ostirala goizean denbora ona egin zuen, horrela jende asko bildu bait zen, inguruetako herri guztietako jendea ikusten zen eta baita urrunagokoak ere: Goizuetarrak, Leitzarrak, Lesakarrak, Beratarrak, Gipuzkoarrak, Ultzamarrak eta abar.

Hazienda edo abere hauek ikusteko aukera izan genuen: behiak: esnebehi holandesak, grisak (suizoak) eta gorriak (pirineikak). Zezen bat. Behorrak, pottokak, astoak, mandoak, ahariak, ardiak eta txerriak.

Esnebehi batengatik 210 mila pezta eta 190 mila pezta beste batengatik ordaintzea iritxi zen. Behor batengatik 150 mila pezta eskatzen zuten, baina saldu gabe gelditzen/zen. Behorkumeak 60-70 milan saldu ziren. Ardiak 4 eta 5 mila pezta

egin zuten baina gutxi saldu ziren. Aurtizko batek 32 mila peztan ahari bikaina saldu zion Gipuzkoano - bati, beste ahariak 10-15 milean - saldu ziren. Zezen ikusgarri bat - ere bazegoen, 700 kilotik gora zituen eta jabeak, Mikel Mindegia - aizkolariak, miloi erdia eskatzen/ zuen, 400 mila eskaini zioten baina ez zuen saldu.

Baziren jantzi mota guztiak: zapatak, zapatilak, galtzerdiak, zapinak, galtzak, atorrak, lastikoak eta abar. Eta baita nekazarientzat tresna mota guztiak, sukaldeko ontziak, turroiak, egutegiak, Erriberako baratxuriak (postu pila bat), eztia, gaztak, urdaiazpikoak, txorizoak, piperrak, kassetak, arrainontzi bere arrai eta guzti, txoriak kaioletan eta abar.

Arratsaldeko bostetan euria hasi zuen eta giroa itzaldu zen.

Gauza ederra eta polita da hourrenbeste baserritar ikustea, aunitz elkarrekin hitz egin gabe egonen ziren eta kontu zaharrak kontatzen eta txikiteatzeko ohitura galdu gabe han ibili ziren.

Jantzi bereziak, txapela, makila eta guzti ikusi genituen, aurpegia berriz gorrittua (hemen erraten — den bezela osaunaren seinale edo - ezaugarria).

Dena dela feri honetan zerbait - falta nabaritu genduen. Urtetik urtera feri honen garrantzitasuna — galtzen ari dela agerian dago, behinik behin haziendan kasuan eta - hori galtzen bada feri hauek galdu dute bere nortasuna. Hori ikusiz - eta egun hau nekazarientzako abeltzainendako berezia delako, zergatik ez egin egun hontan ongi pasatzeko beste ekintza batzuk? Denori gustatzen zaizkigu bertsolariak — trikitilariak, akordeoilariak, aizkora apostuak, pelota partiduak — eta antzekoak.

Jendea egun-pasa etortzen da eta ekintza hauek falta dira egub hori bikaintzeko.



EGUN BATEAN AUTOBUSA ITXOITEN

Arratsaldeko bortzak eta hogeita bost dira.

Eskol atarian, oraindik entzuten dira etxera joan ez diren haurren/ jolasak eta istiluak.

Autobusa heldu da bigarren txanda egitera eta eskolako sare atea/ irekitzean, han doaz neska mutiko/ handienak zalapartaka eta korrika, bultzaka eta algaraz. Ez dira konturatu, ez dute denborarik begiratzeko... Lepoa hausten doaz autobuseko beraien lekua okupatzera. Bidean lurrean, neska bat gelditzen/ da eroria eta autobusa badator...

Udazkeneko hostoak bezala da — biltz haurrak autobus inguruan eta horregatik txoferrak justuan ikusi du neska lurrean... eta frenua zapaldu du... Dena isilik gelditu da. Jolasak, istiluak, korrikak, bulkadak, zalapartak gelditu egin dira. Neska eraman dute eta bakoitza bere etxera joan da.

Gero jakin da neska bere etxera/ itzuli dutela. Baina... nolako bihotz hotza gelditu den, nolako ikaria...

Biharko zalapartak eta bulkadak/ ttikiagoak izango dira?

Marisol Uria.

Orain ekologia bihar zerrilogia

BORDAZAR-ANJEL-MATTIN

Azken urte hauetan jendea, gaz -- teak benetan, hasi dira mugimendu - batzuetan sartzen. Bai ekologistak, bai pazifistak. Hauek guda eta beste gauza askoren aurka dabiltza. — Gauza hauek geuk badakigu osasuna-- rentzat oso txarrak direla. Zentral nuklearrak, arma atomikoak, e.a., - gainera ez dugu ahaztu behar fabriketako zikinkeriak (azidoak, olioak errekara botatzen dituztela. Horregatik jende talde horri gure laguntza eman behar diogu.

Gaur egunean eta egia esan behar da arrisku handiena eta garrantzitsuena gure mendi eta inguruetan - daukagu. Zer gertatzen ari da? Askotan guk egiten ditugun akzioak - edo guretzat onak diren gauzak, -- landare edo eta haziendentzat oso/ txarrak izaten ahal dira; adibide/ bezala:

-. Insektizida edo plagizidarena, mamurruak eta plagak garbitzeko -- oso onak dira, baina ekologia deitzen den kate hortan alterazio bat sartzen da. Produkto horiekin eta/ zaborrekin bazter guziak pozoitzen ditugu. Orain mundua katastrofe -- edo gauza ikaragarrizko bat gertatuko den bildur da. Prezio gares-- tia ordaindu beharko dugu holako - gauzaren bat gertatzen bazaigu, -- baina hori gerta ez dedin neurri - serio batzuk hartu eta erabili behar ditugu.

Zer gertatzen ari da?

Desekilibrio bat, extinzioak,- abere mota batzuen garbiketa, -- eguratsaren kutsadura ("Efecto - Invernadero" deitzen den hori).

Gizonak merkatuan jarri ditu - neurri gabeko produkto toxikoak. Horrela eta egunero sustantzi - sintetiko berriak botatzen dituz te tximiniak eta fabrikak direla medio eguratsera.

Gaur egun arazo serio eta az-- kar moldatu behar dena hau da: - Uraren eta eguratsaren kutsadu-- rak.

Horretaz gainera industriak -- egiten duen zabor pila hor barna agertzen da. Zabor hau gehiegizkoa da, naturak ezin du errezi-- klatu, baina gizonak bai. Plastikoak, kristalak e.a. berriro pro betxatzen ahal ditu.

Produkto kimikoak.

Berunaren eratorriak, organismoarentzat oso txarrak dira.

Elementu edo produkto erradioaktiboak (zentral nuklearrak...)

Bizitzaren mailak edo oinarrizko pilariak mindu edo eta hil -- egiten dituzte. Mutazioak edo — eta minbizia sortuz.

D.D.T., plagizida bat da, orain galerazia, plagakin bukatuko du/ baina izugarrizko efektu txarrak utziz.

Non jartzen edo gelditzen da?/ Ba, nerbio sisteman eta kaltzio/ biltegietan(hegaztien arraultzak hondatzen dira).

Zeri kalte egiten dio? Ba, hegaztiei, arrainei eta ostrari. - Hegaztiak eta beste abereak ahuldu eta deuseratako ez direla uzten ditu.

Baina ez uste pestizidekin bakarrik daukagula arazoa.

Bost herriko arasorik handiena erreken kutsaduran eta lejia eta beste produktu kimikoekin, bizia kentzean.daukagu.

Astero Laminazioak botatzen ditu azido eta olioak, zikinkeriak benetan, Lesakatik pasatzen den/ errekara. Erreka hau gero Bidasoara joaten da eta... Depuradora bat badaukate baina beti ere/ zerbait gertatzen da eta uretan/ amorrainak kiskaltzen dira.

Kate sinple baten fenomenua da hau. Ikusten dugu konzentrazio - biologiko bat. DDT-en sustantzi/ batzuek gelditzen dira eta azkenean hauek pilatzen dira depredadoretan edo gizonak jateko behar dituen abereetan:

- Hegazkinak.
- Amorrainak.
- Ostrak.

Eta baita ere baratzeko landareetan.



Arnasa, eskremento eta izerdiarekin botatzen DDT.

BIOMASA

DDT

GRIPEA

Eritasun hau, birus batzuek sor erazten dute Birus hauek leku itxietan eta jende aunitz biltzen den lekuetan zabaltzen dira. Tenperaturak eta hezetasunak badu ikustekorik. Neguko hilabetetan ematen da hain zuzen ere (Abendu erdialdetik Otsailaren erdi aldera-te).

Pertsona betetik bestera zuzenean pasatzen da (sudur edo ahotik arnasa edo estula dela medio) eta bat batean zabaltzen da leku guzietara, gripe-epidemiak sortuz, arrunt kutsakorra baita. Gripe hartu eta lehenbiziko hiru egunetan ingurukoei kutsatzeko arrisku haundia dago.

Birusak, arnas aparaturik kalte egiten dio, gorputzaren zenbait tokitan mina sortu eta infekzioak ere asaltzen dira.

Tratamentu bezala, sentitzen den gauza bakoitzari erremedioa paratzea da. Eta erremedio horiek hauek izaten dira: Ohatzean sartu eta egon, likido aunitz edan, mina kentzeko eta sukarra jeixteko zerbait hartu, C. Bitamina hartu...

Pertsona gaztea baldin bada eta bere egoera orokorra ona baldin bada ez du antibiotikorik hartzeko beharrik

Aldiz gerta leike pertsona adintuetan, edo bihotzetik sufritzen dutenetan, hauek hartu bait dezakete edo eta kasu batzutan beharrezkoa izaten bait dute

TXERTAKETA

Txertatzean gripea sortzen duen birusa sartzen da eta gorputzak hori sentitzean defentsak sortzen ditu birus horren aurka. Txertuan doazen birusak erdi hilik doaz eta gorputzak errez menperatzen ditu.

Beraz, gripearen aurkako neurri garrantzitsu bat txertaketa da eta honelako kasutan komenigarria:

1.— 65 urtetik gora dituztenak.

2.— Eritasun kronikoak sufritzen dituztenak, pertsona helduak edo haurrak (esate baterako diabetikoak, giltxurdinetatik, bronkiotatik, bihotzetik sufritzen dutenak).

Udazkenean paratzen da beraz, oraintxe da ordua.

Txerto dosi bakar bat hartzea nahiko izaten da.

Ondorio bezala batzuetan pertsona batzuei gorritasuna eta gogortasuna azaltzen zaie indizioaren lekuan.

Tarteka (gutxitan) sukarra eta ondoeza eman dezake.

Eta alerjia berriz, kasu bat edo beste ikustea nahiko arraroa izaten da.

A.Z.

EH TXO;

Gogoratzen haiz ze ondo pasatzen gintuen
Kristo martxa zegoen sasoi ilun hoietan
gaur dirudi demokraziak utzi haula pott egiña
ipurdi hartzeari gustua hartua dioala.

Inorako bidean doazen anka motel hoiek
nork esango zian hireak direla
leku guztitatik korrika ibiltzen hintzen, egunero
ta orain ikusten haut zintzilik eta guztiz, aiko maiko.

Eh txo; gehiegi itxoiten duk
hire begirada heabetiak agertzen dik
zer egin jakingabetasunak indargabe haula
benetan zeharo akabatuta hagola, ematen dik
ta ezin duk konformagaitz bat izan hintzela, gogoratu.

Eh txo; gehiegi itxoiten duk
atera hadi kalera, ta bereskura hire martxa
itxoiten ezin duk ezer lortu.

Eh txo; gehiegi itxoiten duk.





Ez dakit zer egin,
ez dakit gaurko gizarte mota hau
ulertzeko, zer egin.
Baina hemen nago,
hemen nago bai, zertarako nagoen
galdera ezin erantzunez.
Eta bizi naiz,
nik berezi gabeko lekuan
bizi naiz.

Nere eritziak garrantzirik ez duen
gizarte batetan nabil.
Baina ez nago bakarrik, ez,
ni bezalako jende asko badago.
Jende gehiena ni bezalakoa da edo..
Elkar gaitezen, hau moldá daiteke.
Nik behintzat borrokan jarraituko dut.

R.

NEUROSIA ETA PERBERTSIOA

Neurosia, Freud-entzat, errepresio sexual frustrante baten ondorioa besterik ez da. Neurosi hau gainditzeko, errepresio sexual hori kendu egin behar da nahita nahiez. Bestalde, askapen sexual erre primituak izan direnak, ASKATU egin behar dira.

Aurrera jarraituz, Freud bere teoria psikoanalitikoan hau erratera etortzen da: errepresio sexuala behar beharrezkoa da eta kultura, historian zehar, gizarte kulturala errepresio sexualarekin batera sortu da ("Malestar en la Cultura" liburuan honelaxe azaltzen digu). Beraz, Freud-entzat, errepresio sexuala, hau da, neurosia eta gizarte neurotikoa, kultura ordaintzeko modu bat izan da. Freud kulturaren alde posizionatu zen eta guk gizarte neurotiko batekin zer egin?.

W. Reich-en eritzia zeharo desberdina azaltzen zaigu. Hau ere psikoanalista da baina marxista amorratua eta elkarte psikoanalitikoatik bidalia izan zen. Reich-ek dioenez, errepresio sexuala, gizarte kapitalistak erabiltzen duen arma bat besterik ez da. Erabilpen hau asmo berezi batekin izaten da, hau da, langileen zapalkuntzarako. Reich-ek teoria hau aurrera eta garbi azaltzeko, Malinowski, Engels eta Marx-en lanak aztertuz egiten du.

Malinowxki izatez Poloniarra - zen, 1884ean jaioa eta antropologo entzute handikoa. Ikerketa luze eta benetan interesgarria Trobriand Arkhipelagoan (Iparmendebal Malanesia) egin zuen. Ingelesez, 1929an argitaratua izan zen/ izenburu honekin: "The sexual life of savages in North-Wester Melanesia". Ikerketa hau gizarte matriarkal baten antolaketari buruz izan zen eta zer nolako aldaketak ematen diran sexualitate mailan - noski gizarte patriarkal batean - bihurtzen denean.

Gizarte patriarkalen ematen den miseria sexuala, jabetza pribatuaren oinarrian antolatuta dago. Neurosia, perbertsioa eta bortxaketa ukamen eta errepresioaren ondorioak besterik ez direla erratera etortzen da Reich Malinowski--ren lanak aztertu ondoren. Goazen pixka bat eta gainetik, Malinowski-n matriarkadoari buruz -- (harreman sexualak) egindako lana laburki bederen azaltzera:

a) Trobriand Arkhipelago-ko haurren bizitza sexuala: ttiki ttikitatik gurasoak amodioa egiten -- ikustera ohituta daude haur hauek. Gurasoak haurrari burua estera baten azpian sartzera behartzen dute orgasmoko unean, ez molestatzeko asmoz noski. Neska-mutilen artean jolas sexualak (ikusi, ukitu, laztandu bat bestearen sexua) oso normalak dira eta ontzat ematen - dituzte. Anai-arreba zaharrenak - ere parte hartzen dute haurren - hezketa sexual honetan. Gurasoak, beuren haur ttikien jolas-amodio/ horietaz alaiki hitz egiten dute; haurrak serioago hartzen duten -- gauza omen da.

Jolas hauek gurasoen etxe berberan egitea ez daude onartuak, normalean, taldeetan basora joaten - dira. Ez dago hezketa autoritario bat eta haur independientiak sortzen dira honen ondorioz. Lau- - -bortz urterekin komuna ttikiak - sortzen omen dituzte, komuna hauetan pubertateraino bizitzen dira. Nahiz eta komuna hauetan beuren - bizimodua egin, gurasoen etxera - nahi dutenean azaltzen dira.

Reich-ek konparaketa guk ezagutzen dugun gizartearekin egiten - digu eta hau da: gizarte kapitalista-burges batean, gurasoak haurren erabakiak hartzen dituzte, - aginduak eman eta azken finean -- ideologia konkretu baten transmisoreak (familiaren bidez) besterik ez dira. Honen ondorioz, haur dependiente, inhibituak, agresiboak eta beste mila patologia dituztenak sortzen ditugu.

b) Trobiand Arkhipelago-ko gazteen bizitza sexuala: nahiz eta/ gazteen artean pubertateko neurosia eta suizidioa ez ezagutu, -- erran beharra dago sufrimentu psikikoak ematen direla. Sufrimentu/ psikikoak maitatzen duten pertsona erdietsi ezin dezaketenean -- azaltzen dira. Erlazio afektiboak eta baita ere harreman sexualak - askoz garrantzitsuak bezala bizitzen dituzte, nahiz eta ez beti - iraun; pertsona batekin sakontzea

ren alde azaltzen dira adin honetan. Gazteak gizarte komunitario/ honen babesa guztia dute, etxe bizitzak ("bukumatula" izena dutenak) komunitate osoaren artean -- eginak dira, baina misiolarien -- etorrerarekin guttituz joan ziren.

Harremanak ez dira iraunkorrak, bikoteak nolanahi aldatzen dira./ Jelosiaz egotea gauza erraro bezala ikusten da. Bikoteak monogamo/ (neska bat mutil batekin bizitzea) poligamia (neska mutil batzuekin/ edo mutil neska batzuekin bizitzea) etahilargiaren jaian nahasiak/ omen dira. Neska izan edo mutila/ izan behar-nahai sexualak azaltzeko desberdintasunik ez dago, neska batek mutil batekin egoteko gogoa duenean azaltzen dio eta alderantziz berdin gertatzen da.

Gizon-emakume hauentzat orgasmoaren kapazitatea berdina da -- eta batera iristen omen dira. -- Beurek zalantzan jartzen dute gizon zuriaren ahalmena, posturak/ eta abar.

Reich-ek dioenez, % 90 emakume eta % 60 gizon psikikoki gaixo - eta sexualitatea gozatzeko inkapaz direla erraten digu. Eritzi/ hau, Alemanian 1931ean egindako/ ikerketa baten ondorio gisa azaltzen ditu. Emakumeen hoztasuna - (frigidez) gure gizartean ez da/ onartzen gizonaren inpotentziaren ondorioa edo gizartearen -- errepresioa bezala, baizik eta - emakumeak, naturaren eraginez, - ez du beharra sexualarik. Emakumeen hoztasuna Trobriand Arkhipelago-an ez da ezaguna.

Bizitza sexual-afektiboa Trobriand Arkhipelago-an eramaten - modura, normala da neurosia eta/ perbertsioak ez izatea. Reich-entzat, neurosia bizitza genital - perturbatuaren ondorioa besterik ez da eta perbertsioa energia sexuala genitaletate normalatik -- desbiatzen denean sortzen da. -- Neurosia eta perbertsioa, moral/ sexual bat gizartean azaltzen denean hasten dira ematen. Moral - sexual hau, gizonen historian - zehar, interes pribatuak eta gizarte patriarkalekin batera agertzen dira.

Maite Erro.

Zergatik...?

Zergatik joaten haiz hi bezelako jendearekin topatzera? Hi bezelako jendea behar dun inguruan eri bat/haizelako edo gizarte eri batean - bizi ote gaitun/k denok?

Zergatik urbiltzen duk/n niregana jendea? edo ni urbiltzen ote -- nauk/n horiengana?

Berdin zaidak/n, denok elkarren/beharrean gaituk/n. Errepresio handien azpian bizi garenez gero, une batzuetan elkar lotzeko gogoak sortzen zaizkigun/k barruan.

Lotura onak al ditun/k horiek? - Onak edo txarrak baina momentu -- txar bateko hariak. Har horiek batzutan hausten ditun/k betirako -- eta beste batzuetan hari horiek -- zintzilik gelditzen dituk/n.

Andre, haur, zahar eta gazte denok batera bizi behar ninagu/diagu gizarte honetan eta ze zaila den - bizitza. Ze txorakeriak egiten dizkinagu/dizkiagu konturatu gabe.

Begiak itxi zizkiguten txikitatik eta orain betaurrekoak jarrita ere ezin dinagu/diagu ondo - ikusi, ezta ikusiko ere. Zer dun/k egia, zer duk/n argia, zer dun/k - eguzkia.

Dena ustela zegok/n, denok eritu gaittizten/k.

Nor dira gaizkiegile madarikatu/horiek, edo gu geok gaizkile bihurtu ote gara?

ASKAMIN



BORDATXO

Bordariei

Sanmartinak joanak dira; negua heldu da,... eta gu, Bordatxorik gabe, zalantzan. Herriko bestak - zirela bai, ez zenuten kezka handirik hartu, zortzi minutuko -- keak, eta garrak, eramanagatik.. baina gaur, JE! JA! txikia edo - KRISTONA, bakoitzak bere tximua. Ezer ez gara. Onenak, baliosoe-- nak, joaten omen dira, baina,... ez gara, edozein modutan, senten tziotsuak jarriko. Izan zena, -- izan zen eta...

AURRERA MUTILAK!... Berehalaxe irikiko dutela aditu dugu,... -- gau eta egun ari omen direla, -- jai eta aste. Hori bai, zer egiteko?

Ez dut nik esango amerikanoen/ gisara hasi behar zutenik, hau - eta hura galdetzen,...tapizen kolorea, edariren kalitatea, sarrerako prezioa,... ez. Gehiegi -- izango zen, akaso, eta, behar bada, talde politikoek sartuko zii-

ren erantzunak ematera. Kalteak/ ez handitzeagatik utz dezakegu - lehen bezala. Bordatxo aste bu-- kaerako garajea.

Honeraino konforme gara, edifi zio bat behar dugula, hemendik - aurrera hasten dira arazoak. Adi bidez, eta deskortesiak barkatu, nik zera eskatuko nuke, zerako - zera,...

A.- Disjokey (diskojartzailea) zaharra desagertzea, edota, posi ble ez bada, kursilo batetara bi daltzea. Oso urrutira ez. Lesaka bertan, garbitasuna eginez eta - konsumizioak doble kobratuz zen- bait tabernetan hartuko lukete. Hiru asteko epea emango genioke, eta ez bazen zuzentzen, Malda -- Errekako Martintxorengatik aldatu.

B.- Galarregi. Egia esateko, - ez dut ezer konkretu pertsonai/ honen aurka, edaria berotzen due la besterik ez. Inoiz ez dakigu/ non eta nola azalduko den, eta - eskutartean gorde behar izaten - dugu basoa eta horma urtuzen da erraztasun miragarrirekin. Arro- pazaindegirako ona! Han zeuden - atsoak aterako eta atezaintzai-- leak zirenak, kontrabandoko taba koa saltzeko.

Eta pertsonal asuntoa konpondu dugunez gero, tira eta segi.Nork ez du pentsatu ederretik libratu ginenik? Arrisku edo peril izuga rrian egon garenik?

Oraindik sumatzen dut keak -- utzitako egarria. Gutxienez, -- URTE BERRIRARTE EDARIA LIBRE!, - eta larunbatero, hiruterdietan, su simulakroa. Horrela, dudarik/ gabe, behar den bezala konpondu/ duten ala ez jakingo dugu, eta, zoritxarrez, Bordatxo ez bada -- gauza tratamentu hau aguantatze- ko, proba ederra. Hobe aurrez -- kontuk hartzea sutan kizkaltzea/ baino.

Eta zerbitzu berriak? Edozei-- nek daki Bordatxo nahaspila hu-- tsa dugula. Batzuk, gutxienek -- ziur aski, dantza egitera doazte eta horiek disjokeyen moderniza- zioarekin nahiko lortu dute; bes batzuk, askok, edatera, eta -- hauek, lehen bezala, kamareroe-- kin konponduko dira, nola edo ha la... Baina, ligatzera doaztenak? Asuntua aurreratua dutenak, komu na ondoko sofak direla eta,... - bale! Lehen eta orain, gutxi go- ra behera berdin. Baina, hasiera ematea, berriz, askoz ere proble matikoagoa. Lehengo sistemak baz tertu gabe... ¿bailas?... edo ko rridoreko "metemanos", amontegi- ko bidean,... baina mundua aldat- zen doa, teknika berriak sor - tzen, aurrerapenak... eta egia - esateko, penagarria da batzuk -- emaztea ezin harrapaturik ikus- tea; konponketa erreza dutela ja kinta... Ordenadore bat beste-- rik ez da behar... Adibidez: J. C., 324675 zenbakia; 50 urte; -- 1,70; fabrikante eta etxeko nagu sia;... pezta. Aurrezki Kutxan;- arront osasuntsua, ona eta alaia, 18tik 35 urte bitarteko birgina, garbia eta langilearekin ezkondu ko zen, haur zaintzailea izan de dila nahiz dote txikia eduki;... Seinale pertsonalak: kazka-soila, bi begikin eta... buztan neurria azaltzea ez zen admitituko, exa- jeraziorik ez egoteko,... ohitu- ra bereziak,... Eta ez luzatzea- gatik hau nahiko izango zen. Or- denadorean sartu fitxa, eta apro poseko emazte-gai-fitxa azaltze- kin, ZAS!, elkarrekin geratu, -- eta saiatu... Gaizki ateratzen - dela,... ez ezkondu! Ongi etor-- tzen direla,... 20.000 pezeta -- gehiago Bordatxoko arima guztiak konbidatzeko, eta 5.000 ordenado rearentzat.

Nik, esan behar nuena esan dut. Zuen eskuetan geratzen da propo- samen hau aurrera ateratzea. Bes te bat arte.

BLAS



ZURETZAT GARTZELARI
EZ UZTE ZU DENA ZARELA
ETZARA DELSERE
IZENA ZENBAKI BAT DUZU
ETZARA PERTSONA
EZTA HORI ERE
LASTIMA EMATEN NAUZU
PRESOA UPILATZEN DUZU
SUFRIRAZTEN DUZU
BIJILATZEN, TIRABIRAKATZEN DUZU
BERA XEHATZERA SAIATZEN ZARA
BERA BAINON GEHIGGO SENTITZEN ZARA
ETA DEUS ETZARA
KAKA ZAHAR BAT ZARA
PRESOA PERTSONA DA
SENTITZEN, MAITATZEN, PENTSATZEN, ERRESPETATZEN
IRRI ETA NEGAR EGITEN DU
ETA ZU GARTZELERI ZER ZARA?
ZER IZATEN AHALZARA, ZURE BIZI MODUA
BERTZE GIZONARI ASKATASUNA KENTZEA
BALDIN BADA.

Bitxo.

ETSAIAREN TRESNAK

Droga kontua modan dagola,
hau da entzuten dudana,
ontzat hartuta dabiltza geroko
gaizki datorkiotena.
Osasunaren kalterako da,
horrek ematen du pena,
zer hartzen duten ez dakitela
askok hartzen dutena.

Ez badiogu gure bizitzan
zuzentasunari heltzen,
berriro ere grina gaiztoak
joango dira ugaltzen.
Zoritxarreko droga nastuak
dijoaz hemen zabaltzen
eta gazteak hor ari dira
beren osasuna galtzen.

Inoiz ekaitzak galdu ohi ditu
udaberriko loreak,
drogak halaxe zimurtzen ditu
gazte jator dotoreak.
Hoiek ekartzen ari diranak
ez dira askoz hobeak,
euskaldunik maite ez duten
zakur bihotz gabeak.

Zer balio du edertasunez
gorputza aberasteak,
eskuartean baldin badabiltz
droga eta holako nasteak.
Batzuen bidez ez badirade
eskarmentatzen besteak,
horretxek galdu behar dizkigu
loretan dauden gazteak.

Gaur, egon arren sendagai onak
eta mediku abilak,
garbitzen zail du benenatuta
dagoen adol debilak.
Joan zen urtean ehuntikan gora,
neskatxak eta mutilak,
drogaren bidez Euskalerrian
izan ziren hilak.

Lotzati

ZURE TRISTURA DUT NABARI

Gaueko zortziterdiak dira, bakarrik nago. Eguraldia kaxkarra dago, euria eta tximistak. Tristura barneraino sartua daukat, beharbada eguraldiak egiten dit. Autobusa bederatziak laurden gutxiagotan etorriko da. Ordu laurden hau luze egiten zait, gutxienez besteekin hitz egingo banu, baina ez dut gogorik. Lau edo bost gizon hizketan ari dira. Ni bezala, beste emakume bat ere bakarrik dago, ez du inorekin hitzik egiten. -- Triste ote dago ere?. Berdin zait.

Azkenean, bost minutu beranduago, iritsi da autobusa. Lehenengo jarlekuan eseritzen naiz, eta nire ondoan emakume bakarti hura. - Berrogeiren bat urte izanen ditu, bere ilea zapi berde batekin tapatzen du. Ez diogu elkarri hitzik/ egiten. Berriz ere galdera bera - bururatzen zait, triste ote dago? ni bezala ote dago?. Behin edo -- beste begiratzen dut eta bere aurpegia lasaitasunez betea dagoela/ konturatzen naiz. Tximista batekin batera biok elkar begiratzen/ dugu eta emakumearen begiek irri/ egiten didate. Irri eta zerbait - gehiago, ez dakit zer, baina zerbait gehiago adierazi nahi didate. Adiskidetasuna? Maitasuna? Ez dakit baina ongi nago, gorputza lasaitzen ari zait eta bidai polita dela pentsatzen dut. Ondoan daukadan emakume hau gustatzen zait, - biok, hitzik egin gabe baina gustora goaz elkarren ondoan. Kanpoan euria, ortotsek eta tximistek jarraitzen dute.

Ixiltasun hartan emakumearen ezpainak mugitu dira. "Zure tristura nabari dut, keinu lagun bat - eta ixiltasuna, ezer gehiago ez - dizut eskaintzen", entzun dut. Orduan autobusa gelditu da eta nik/ atera behar dut. Azken begirada - bota diot eta kanpoko ilunpera -- atera naiz. Emakumeak barrutik - irrifar bat bota dit, eta nahiz - eta berak ez ikusi, musu bat bota diot. Autobusak bere bidea jarraitu du. Ni oinez hasi naiz.

R.



EXTRADIZIOAK

Gure Euskal Herri honek, hamaika eraso jasan ditu bere historian. Lehen faszismoaren menpean zegoelako eta orain Estatu Espainolean nahiz Frantziako Gogernuan - " sozialistak " daudelako. Une honetan, Herri honen askatasunerako gogoa zapaltzen jarraitzen dute - eta hortarako errepresiozko bidea erabiliz. Borroka egiten duen jendearen aurka sortu dituzte ez dakit zenbat neurri, alde batetik - "plan ZEN" delako hori martxan jarri zuten, GAL ere sortu zuten -- eta azkeneko neurriak extradizioak izan dira.

Baiana, Euskal Herriko herri mogimenduak extradizio neurri hauen aintzinean erantzun egin du. Beste askoren artean "Munduko Nazioei Gutuna" deritzen zaion mogimenduak arrakasta handia izan du. Alde batetik, extradizio eta deportazioen aurka 300.000 firma biltzea lortu du eta bestetik kanpaima honi manifestazio baten bidez - bukaera eman dio.

Manifestazio hau urriaren 20ean ospatu zen Bilbon. Egunkariek eta gainerako medioek han izan zen -- jende kopuruaren zenbakia eman zituzten, dena dela, garbi ikusi genuen gauza hau izan zen: aspaldiko urte hauetan egin den manifestaziotatik handiena hauxe izan zela. Eta beste datu bat (garrantzi handikoa), "Vascongadas"eko partaide gehien duen alderdiak manifestazio hau ez onartu arren, -- hainbat erakunde elkartasunean -- joan zirela.

Manifestazioaren ondoren, "Munduko Nazioei Gutuna" delako koordinadoraren partaideek, manifestazio hau izugarrizkoa izan zela aitortu zuten, eta hainbeste jende/ ikusteak Herri honi bere eskakizunak ez zaizkiola ahanzten adierazten duela, eta eskakizun hauek lortzeko borroka egiten duenekin dagoela, hau da preso eta errefuxiatuekin.

Horretaz aparte, Gobernadoreak/ bere aldetik lan egin zuen. Kontrol ugari paratu zituen jendea -- Bilbora joan ez zedin.

Kaixo Juan!

Juan Estanga, Erasundarra da eta 1.907.urtean jaioa, orain 77 urte/ditu eta oraindik bizkor asko ikusten dugu. Soinujolaria bera, aspaldian herri aintzinean jotzen ez duen arren, oraindik bere etxeko sukaldeko paretak ere dantzan paratuko lituzkeena, gizon alaia hauxe. Berarekin egoteko gogo haundia genuen eta azkenean kontu zaharrak aipatuz eta tarteka soinua joz une atsegina pasatu dugu. Hara hemen solasalditxoaren berri.

TTIPPI TTAPPA.- Juan, noiztik duzu soinurako afizioa?

JUAN.- Txiki txikitatik, betitik./ Nik atautxi ere soinu jolaria nuen eta lehengusua ere bai; oso txikia nintzela hasi nintzen musika ezpainetakoa jotzen, plazan eta, mutil/koskorrak eta danak dantzan ibiltzen ginen. Edozein egunetan, eskolatik atera eta hartu filarmonika eta plazara, hamar edo hamaika/urte nituen eta aditzen nuen soinu guztia jotzen nuen, dena belarriz/belarriz jakina, guk ez genuen solfeorik. Nik behin ere ez dut solfeorik izan, ez aitak eta ez atautxik ere.

T.T..- Noiz izan zenuen lehen akordeona?

J..- Lehenbizikoa Ezkurran erosi nuen, Migel Matxinenari, Baztan esaten genion, hil zen. Orduan, Ezkurrako karretera hau egiten ari ginen, 13 edo 14 urte izanen nituen eta eskolatik gelditu ginen denboran Pako Ernandorena, Xabier Gaztearena eta ni, hiruek, karreteran hasi ginen eta 3 pezeta pagatzen ziguten eguneko eta 2 asteko jornalarekin erosi nion akordeon hori. Akordeon zahar zahar bat lau bajokin eta harekin hasi nintzen batera eta bestera jotzen, ez dakit nola jotzen izanen nuen baina behinikbehin plazan denak ederki dantzatzen zuten. Hurrengo akordeonan pizka bat ernatzen hasi nintzenean ekarri nuen 30 duro pagatuta. Polita zen eta soldaduzka pasatu arteraino harekin egondu nintzen. Azken hau berriz, Donostian erosia,/ Larrinaga Gerriniri. Errepublika proklamatu zen egunean erosia da hau. 80 duro balio zuen, orduan 80 duro asko zen, egunean duroa irabazten zutenak gutxi ziren gero. 13 akordeon zeuzkan eta denak probatu

nituen hauxe zen hobentxuna, kolorea ez zitzaidan gustatzen eta aldatuko zidatela baina 4 duro gehiago kostatuko zitzaidala eta hala 84 durogatik erosi nuen. Akordeona pintatzen ari ziren bitartean Errepublika proklamatu zen eta nola hala akordeona hartu eta estaziora, Plazaolara, joan eta ez zegoela trenik, "ederki zegok" - pensatu nuen - "orain zer egin behar diat?" Eta hartu akordeona bizkarrean eta oinez Irunera eta handik Doneztebera Topon eta hortik Erasunera berriz oinez.

T.T..- Noiz eta nola aritzen zinen soinua jotzen?

J.- Iruinean lanean bi urte pasatu ondoren etorri eta tratoan, arropa saltzen ibiltzen nintzen mando batekin bueltaka eta aditzen nituen guztiak memoriz ibiltzen nituen bidean nenbilenean, eta etxera etorri eta hartu akordeona eta jo. Aita beti erristan "lo egiten ez diek uzten auzokoei, inori ez diok uzten" eta ateak, leihoak eta denak itxi eta hantxe aritzen nintzen, bi ordu edo hiruak arteraino jo ta kea, aditu nituenak eta ez nituenak nundik atera, jaiean gero plazan jotzeko.

T.T.- Non jotzen zenuen?

J.- Plazan jaiero, hemen Erasunen.

T.T.- Erasunen bakarrik?

J.- Ez, lehenbizi hartan bai, 50 urte kunplitu arteraino bai, Erasunen joz non eta kanpon edo ez nintzen. Bai, herriko neskatxak eta mutilek hortxe egoten ziren soinua jotzeko esanaz eta batzutan 9,5 eta bestetan 10 pezeta pagatuko zuten, gazte guztien artean egiten zuten eta kanpotik etortzen zirenak ez zuten pagatzen; dantzatu, jakina. Zubietar pranko etortzen zen honera, makina bat bai, bere bizikletarekin, emakume eta gizasemee.

T.T.- Orduan jaiero soinua izaten zen, ezta?

J.- Bai, baina herrian izaten ziren ezin eraman zutenak eta gerra arteko aurretxo horretan gertatuzena kontatuko duzuet. Zubietakoa zen apeza, D. Epifanio Santxo eta honek bazuen arreba bat zerbitzari gisa Agapita Santxo, eta atso eta emakume batzuekin juntatzen zen eta haiek oitura txarrak paratzen ari nintzela eta apeza paken ez uzten, ohitura txarrak paratzen ari nintzela eta apeza D. Epifanio hori gau batean etxera etorri zen. Ni soinu jotzen ari eta afaltzera etxera joan eta sartu naizenean aita zenak: "aizakseme, D. Epifanio hemen zegok, hikin egon behar omen dik" eta utzi akordeona eta sukaldera, han zeuden su ondoan biek eta ama aldegina handik gora. Hala, gabonak elkarri eman genizkion eta "zerda D. Epifanio" eta harek: "badakizu zera, gure arreba horri ez diote paken uzten soinua jotzen duzula eta ohitura txarrak paratzen ari zerala eta ez dit pakean uzten eta horregatik etorri naiz, gelditukо ote zeran edo". Orduan nik: "aizu D. Epifanio, nik acordeona 84 duro pagatuta ekarria daukat eta nik irabazteagatik jotzen dut e!. Niri pagatzen didate batzutan 8 pzta. eta bestetan 10,

saio bakoitzeko, gazte denen artean biltzen dute, eman iezaidazu 10 pzta. horiek eta ni soinu jotzetik gelditukо naiz". Gure aita zenak: "bai ederki pentsatu duk - seme", hori esan zidan. Eta orain dik ere esan nion: "ni soinu jo - gabe egongo naiz, nik Erasunen ez dut soinurik joko baina behar bada Ezkurrara eramango naute edo - Zubietara eta hemengoak hara joanen dira. Orain Zubietatik, Saldisetik eta, honera etortzen direnok gero harat joanen dira, ni/ joaten naizen tokira eta ni joan/ gabe ez naiz egonen e!". Apezak - orduan: "niretzat asko da 10 pzta, asko da". Nik orduan "lehen bezela segituko dut". "Ba ba ba", esanez atera eta joan zen etxetik.

T.T.- Orduan zer jotzen zen ba?

J.- Dena sueltoan, hori huts hutsa, batzuetan korroa eta horrela.

T.T.- Orain bezela goizalde arte - aritzen al zineten?

J.- Ilunabarrean, ilun-ilunean apezaren arrebak jotzen zuen ilun ezkila eta orduan emakume denak erretiratzen ziren, fuera denak etxera hori gerra aurretik zen, eta haiek etxera joaten zirenean gu ere bai/ ostatuan soinu aldi bat jo eta --- etxera afaltzera. Tabernan, dantzaldi bat egiten zen baina emakumerik ez zen joaten, bai zera!

Neska laguntzera joaten baziren/ mutilek, isilka joaten ziren, bakar bat edo beste.

T.T.- Herriko plazan besterik ez - al zenuen jotzen?

J.- Ihauterietan eta bestetan ere/ jotzen nuen, Gero, baserriz baserriz baserri inor esposatzen baldin bazen boda guzietan hantxe -- egoten nintzen. Nik Leitzako baserri gehienak egin ditut.

T.T.- Bodatan eta zer kantatzen -- zen?

J.- "Aita neriak amari
gona gorriak ekarri
berriz ere nahiko dio
ama guriak aitari
ama guriak aitari
ama guriak aitari
aita neriak amari
gona berria ekarri"

Erderaz ere "que guapa esta Maria" kantatzen genuen.

Esposatzean ere koplak kantatzen ziren, mutilek neskei kantatzen -- zioten:

"Dios te salbe
ongi etorri
gabon Jainkoak digula
gabon Jainkoak digularikan
egun on bat digula"

Batek edo biek kantatzen jarraituko zuen eta gero azkenean denen/ artean erantzuten genuen:

"Lekunberritik urrutixeago
herri txiki bat Huizi
nere lagunak aspertu naiz eta
egin zazute irrintzi"
"Lekunberritik urrutixeago
herri txiki bat Huizi
nere lagunak aspertu naiz eta
egin zazute irrintzi"

Eta denak irrintzi egin eta andregaiaren etxera, ardoa eta gazta zaharra jatera. Etxe inguruan jarri eta elurra ari bazuen ere, denak kantari. Eta ni akordeonarekin.



T.T.- Noiz egiten zen hau?
J.- Pregona egin eta hirugarren -- egunean.
T.T.- Zenbat urteraino aritu zinen soinua joz?
J.- 50 urte kunplitu arteraino jotzen aritu nintzen eta 18 urte baino lehen hasi.
T.T.- Honetatik bizi al zinen?
J.- Afizioa, bizi ia ia. 1.000 pezeta nuen jornala, sekretario auxiliar bezala eta familia genuen, 7/ semealaba, familia akordeon horrekin hazi dut.
T.T.- Lehen nola dibertitzen zen - jendea?
J.- Orduan zekitenak eta ez zekitenak denak dantzan aritzen ziren.

Neskatxak eta mutilak, 16-17 urtetan gaztetan sartzen ziren, neskatxa ia sociedadean sartua bezala gelditzen zen, emakume. Eta piperopilek egiten zituen gazteentzat, - bakoitzak piperopila bana eta herriko mutilei ematen zioten. Mutilek neskei berriz,txokolatea herriko plazan, jaietan ia jaiero izaten zen. Boladoekin ura ere, ----- (erroskila bezelakoak uretan sartuak, goxo goxoak ziren) ematen zuten, Hau mutilek neskatxei ematen/ zioten soziedadekoei bakarrik, -- beste denak bazterrean gelditzen - ziren.
T.T.- Eta orain jotzen al duzu?
J.- Orain gutxi jotzen dut, ez dut lehen bezala jotzen baina behinik- behin ari.

Pello Josepe tabernan dago
haurra jaio da Larralden
etxera joan da esan omen du
ez da neria izanen
berorren ama upa dezala
haur horrek aita zein duen.
(Emakumearen erantzuna)
Hau da pena eta pesadunbrea
senarrak haurra ukatu
Pello Josepe bihotz neria
haur horrek aita zu zaitu
berorrendako beste aitari
munduan ez dut upatu.

zorti bertso

Larun mendiari

1. Milaka urte dituzu
Euskadin ezagun
lehen aldiz joan-ta
geroztikan lagun.
Muga bat omen duzu
erditik gaur egun.
Zenbat haize hotsaldi
ote dituzu entzun.
Harro eta berexi
zaitugula Larun.

2. Kaskuan etxeak-ta
dorre bat zuzuna
horrela ikusirikan
nik hartzen dut pena.
Mendi batetarako
hori duk azkena.
Bera aldetik pista
bertzaldetik trena.
Exerita joan leike
harat nahi duena.

3. Garbi dagonean bistak
paregabekoak.
Ipar aldera zelai
eta itsasoak.
Hegoan berriz duzu
hor, mendi multzoak.
Han ta hemen egaka
dira arranoak.
Larunan pasa ditut
nik ordu gozuak.

4. Nonahitik abiturik
malda izugarri.
Priska joan ezkero
ibiltzen naiz larri.
Goiti aileturikan
haizea zein garbi.
Arbolak beran utziz
han harkaitz ta harri.
Puntta hondatua bainan
beti zoragarri.

5. Handik ikusko'ituzu
mendi ta herri aunitz.
Ezinda dena erran
lerro batzuk jarriz.
Urrun, mendi zorrotzak
kostaldean Biarritz.
Edertasunen proba
hona hemen bi hitz.
Behin joaten dena
itzultzen da berriz.

6. Udan joan ezkero
mendi honetara
hango jendetza ikusiz
harrituko zara.
Ixiltasun beharrean
buila ta algara
pertsonak batzuetan
aldrebes gara.
Bake bila joan beharko
merkatu-plazara.

7. Askotan egoten haiz
lainotan gordia.
Ez erakutsi nahirik
hire aurpegia.
Negu partian urtero
jartzen haiz txuria.
Bakardadea tarteka
baita egokia.
Botatzen duk kanpora
hortik gizakia.

8. Hire kontuk emanez
orri hau dut bete.
Lagun handiak gaituk
hi zahar ta ni gazte
ni baino gehigo dituk
mordoxka bat urte
ezin guk biok bizi
elkarren aparte.
Bisitan joanen niok-ta
Agur, hurrengo arte.

Doinua: Xalbadorren
"Herria ta Hizkuntza".

GAUR IZAN DA LEHERKETA,
iratzeak, mendi gorriska, begi astunak,
eguzkiaren besta udazken iheskor honetan.
Suge ezkutatuek ez zekiten zer egin,
edo bihotzean sartu edo aizkora inguratu;
errekak mugatzen zuen aukera zaila
amets sentikorrak igarriz.

Suizidioari buruzko solasa
irain huts bat zirudien honelako egun batean,
hiltzeko eskubidea, bizitzeko ezina;
zianuroa eta akabo, eskatu omen dute
zenbait estatu batuar gaztek
bukaera nuklearra baino lehen. Bapo,
zain ilunak moztu eta hegaz egitera.

Usoak, tiroak, zeru haserrea,
eta barrenean ardoa. Urtxintxa barre eginez,
zuhurra, ehiztariez hunkitzen da funtsean.
Eta nik, ikuskizun guzti honen aurrean,
harrapatu nahi dut hezetasun distiratsu honen zentzua,
hartzen desagertzea eta
haur ametsen zergatia.

J. B. TIRAPU

EHIZA, DEBEKATU BEHAR LITZAKEEN KIROLA



Ehiza denbora datorrela eta hitz batzuk idaztea gogoratu zait, nolabait ene iritzia gaihoni buruz azaldu nahiean, Seguraski txorotaz botako naute batipat ehiztariak baina nik ere askotan pentsatu izan dut haiek/ txoroak direla zeren animali tximel eta gaixoak tiroka hiltzea txoroen lana bait da. Hasi aurretik beraz berdin gaude! Ehiztariak eta ni.

Kondairako liburuei begirada txikia botayzen badiogu azaltzen digute gizona betidanik ehiztaria izan dela. Lau hanka gainean zebilenean tximinoren antzera, ehiztaria omen zen eta geroago ere ehizatik bizi omen zen. Denbora horietan bizirik iraun nahi bazuen, ehizatik bizi behar zuen ez baut zeukan beste ogibiderik. Pixkanaka gizona aldatzen joan da. Hasieran nekazaritza lantzen hasi zen eta hemendik ateratzen zituen janari mota ezberdinak: barazkiak, ogia, e.b./ Geroago animaliak zainduz ere janariak ateratzen zituen: behi eta ardien esnea, oiloren arraultzak e.b.

Apurka gauzak aldatzen joan dira eta gaur gizona ehizean ez da janaria lortzeagatik ibiltzen, mementu egokiak daztatzeagatik baizik. Honengatik deritza ehiza

ri kirola. Kirol garratza eta mingarria! Uso, bele, kabrin, txori eta gelditzen diren abere/ eta hegazti banakak desagertzeko zorian bait daude ehiza dela medio.

Gure lurraldean, Baztan eta Bidasoako inguruan izugarrizko ehiztari pila dago. Dena dela ehiztarien artean ere bereizketa egingo nuke: ehiztariak eta eskopeteroak.

Ehiztariak neretzako, errespetagarriagoak dira zeren kontzientzia gehiago bait dute beren izaeraz. Ehiztari on batek (ehiztari ona dei badaiteke) gehiago/ errespetatzen ditu animaliak, berak hil nahi dituen animaliak.

Gehienok ehiztari talde baten bazkideak izaten dira eta urtean kezkatzen dira (asko ez bada ere tamalez) animalien errepoblazioan. Ehizea debekatua dagoen garaiak errespetatzen ditu eta bere helburua ez da tiroka egitea bakarra. Txakurrari erakusten ordu asko pasatzen ditu, nahiz koneju edo bekada edo basurde ehizeko txakurrekin. Ehizako/ garaia iristen denean ez dio edozeri tiroka eginen. Uso ehizera/ joan bada usoak hiltzen ditu eta ez txori eta etortzen zaizkion hegazti guztiek. Nahiz azken battean aberak eta hegaztiak hil badauka animali eta naturarekiko zaletasuna.

Eskopeteroak dira behar ez liratekeenak. Ez daukate ez aberekin ez naturarekin minberatasun/ apurrik. Eskopeta eta munizioz leporaino kargatuak igotzen dira mendira. Han tiro honat, tiro harat, ez dute atsegiten eta berdin zaie hiltzen dituzten abereek debekatuak diren ala ez. Eguerdia iritxi bada eta ez bada tor hegaztirik zuhaitzei hasten/ zaie tiroka, apustuak eginez, zeinek tiro gutxiagotan moztu adarrak edo zuhaitz landare txikiak. Hitz batez esateko abere eta naturaren etsairik handienak dira.

Abereek daukaten etsairik txarrena gizona da. Bi eratara izorratzen ditu; kutsaduraren eta ehizaren bidez. Kutsadura apurtzen ez den bitartean ez da abere eta hegaztientzako bizi atseginik izanen eta ahaleginak egin behar dira apurtzera. Alde horretatik hasiz gero aitzako asko daude ateratzeko, ez dagoela dirurik e.a. Baina ehizea debekatzeko ez dut bakar bat ere ikusten.

Zeren... ze on egiten dio ehiztariak naturari... hegaztiei... abereí...? Ezer ez!!! gauza kaltegarriak bai pilaka. Mendi guztia kartutxoz betetzen du, setoak egiteko zuhaitzak bota eta/ izorratzen ditu, mendiko lasaitasun atsegina zarata bihurtzen du eta gainera abere eta hegaztiari desagertzeko zorian jartzen ditu.

Nik egingo nuke proposamen bat: Ehizea DEBEKATUA IZAN DADILA.

Orduan izango genuke denok abereak ikusteko aukera, orain diren banakak, guztiz gehituko bait lirateke eta inoiz ikusi ez ditugun abere motak agertuko. Gainera kirol egiteko aukera hobea izango genuke zeren liluragarria izango bait litzateke mendi aldean bueltatxoak ematea mota guztietako zuhaitz, abere eta hegaztiak ikusiz.



KATALPO

HARRO HARRO SENTITU NINTZEN

Jende ugari zegoen. Pausoak ematzeak bere zailtasuna zeraman. Poliki besoekin bi aldetara aintzinekoak erretiratu eta tartetik pasatu: bi metro irabaziak.

Berriz ere prozesu ber-bera: gorputza sartu -"barkatu, barkatu" okondoak xuabe-xuabe erabili eta/ aurrera.

Buru gainetik trapuzko panpin batzuk goraberan noiz behinka ikusten nituen, -"saltatu zen Karrero Blanko kantatzen ariko dituk, baina arritzekoa panpin berdintsuekin, lehen kapelu, elastiko edo eskutan genituenak botatzen genituen; hau munduan aintzintzea!"- nolakoak izaten dituken "walkiriak", baina beti kupelak bezalakoak eta trentza ori batzutan ilea txirikordatua imajinatzen nituken -operako "prima donna" horien medioz noski-). Ondoko gizonak berriz, txar, makal eta gaizki eginak. A nolako pareja sailak! Naitez irritsuak.

Distantzia txikitzen ari nintzen bezala -"barkatu, seme bat galdu zait eta..." walkiriak gizonak zirela eta mutil murritzak neskak erreparatzen hasi nintzen. "Hau duk ile hartzea, hau!".

Hontan martxan jarri ziren: musika talde aldrebes batek eramanez keinutan hasi ziren: orain zu

Zenbatenez hurbileago eta gero/ eta jende irritsuagoak aurkitzen/ nituen -"hau duk gauza xelebrea,/ norbait ederki "el pata" egiten ari duk"-. Nire aintzinekoen buru tartetik hasi nintzen besta okasio hura ikusten: lekurik gabe, bi lerrotan, elkarri begira emakume eta gizon batzuk. Hura jantziera, hura itxura! Non bildu ote zituzten halako emakume "walkiria"/ zarpotak? (egia erran, ez zikiat/ re ondotik pasatzen naiz ipurkada bat emanez, walkiria-gizon-emakumeek panpin xuri txiki bat besoetan dantzatuz; orain begirada eztitsu bat bidaltzen dizut, gorputza bitartean mugiratuz; gora panpina!, gero lerrotan martxa erritmo arritmiko batek bulkatuz; izerdia, umorea...

Begira geundenak, irria ezpainetan ezin genuen gorde. ¡Mira, mira "la primera"! ¡y "la pequeña"! ¡Cómo se mueven!

Gero eta leku estuagoan zeunden dantzariak. Jendeak lepoa luzatzen zuen. "Ez bulkatu, mesedez"/ "Barkatu, ez diat nahi izan".

Herri koxkor hauetatik besta

Inori kasurik egin gabe buztarkar erritmiko haretan jarraitzen zuten. Nire irri murritza utzi gabe, beren aurpegitan ohartzen hasi nintzen: "To, hori ez ote duk/ Iturria... eta bertze hura ere inolaz ezagutzen diat... Nola ote dik izena... Ez zikiat, baina ezagutzen diat, bai noski... eta hura... eta haratxeagokoak... dudarik gabe Berakoak dituk!

Bestak segitzen zuen. "Es lo mejor que hay" "Se están quedando con la gente"

Egia erranez, horrelakorik Beran bazelik ez nekien. Haur denboretako inauteriak bertze modukoak ziren: lau mozor eta sei "pelegrino, pelegrino"; Iñude eta Artzaiak norbaiten istorioan lokartuak zeunden.

Iruñea beren inguruan bildu zuten. Ez zen hura bezalakorik "Nafarroa Oinez"-en ikusi.

Berako seme bezala harro-harro/ sentitu nintzen, "ez duk hain herri trixtea, zenbait erakutsi beharrekoak badizkiguk".

Pozezko hotzikara batek jo ninduen. Begiak altxatu nituen: panpinak, gorabera egin ondotik, walkiria-iñude beso azkarretan murgildu ziren.

Poliki-poliki itzuli eta alde egin nuen -"barkatu mesedez, toki pixko bat"-

Irri murritza ezpainetan neraman.

1984eko Irailak 21.

LANDAXOKO.-

Aurten egokitu zait Bidasoako inguruak ezagutzen hastera, leku/ zoragarriak, herri ttikiak, bata/ bertzearen inguruan eta hainbat txoko ikusgarri..., benetako sorpresa izan da.

Urtean zehar eta udaran gehienbat, astero, han ez bada hemen, besta! Ez da gero berriketa!.

Eta oraindik, Irailean, joaten/ naizen bakoitzean, herri koxkorren batean izaten da zerbait.

Jendea, gehienbat hankak astintzeko gogorekin ikusten da, eta batzuk hankak ezezik, bertze edozer mugitzeko prest. Horrelakotan, inork ez du presarik izaten etxera abiatzeko. Iaufika gau osoan ibili direnak, goizaldean kontuak, lanera joan behar eta hara zer aurpegiak: luze-luzeak eta bizarra berriz herrestan dabilkitenak ere ikusi izan ditut.

Behiak eraistera ere baten batek joan beharko zuen, bada. Baserri gehienetan amak egin behar eta ez hori bakarrik, gero bazkaria agudo eduki behar zakila-potro horiei. Hara zer nolako komeriak! Esolaren bat zuzen goraka paratzea zihoanak ere, lurrean botata utziko zuen tente zegoelakoan. Erreka pasatzen den herrietan berriz, goizaldean mozkor ugari elkarren ondoan, batak bertzea bultzatuz urak errepasoa eman diezaieten. Nahiko buztita ez al zeuden haiek? Zertarako gehiago busti?

Eta honela izan arren, ezin egon hemengo bestetara etorri gabe. Hau komeria!!!.

Eu.

IKASTOLA.- Azken bi hilabete hauetan, Baztango Ikastolak karrikara atera ditu bere estutasun eta ordu larriak. Bertan, 226 haurtxo eskolatzen ari dira bere euskara mintzoan; bitartean/ 600 baztandar pasa, Elizondoko konzentrazioan beharbada euskara/ ahazten ari dira, bertan ez baita oraindik finkatu "bilingüismo" deitzen den modalitatea. Hala izanda ere, Elizondoko J. Iturralde jaunak ez du lotsarik galdu, konzentraziora pasatzeko Ikastolari eskeini egin dioenean, bertan/ euskara izango dutela dio, baina/ lotsa hori gehiegizkoa da honakohau jakitean: Orain dela bi hilabete berak nahi izan zuela euskal maisuak kendu Erratzu eta Azpilkuetako herrietatik.

Ikastolak jarraitzen du bere borrokarekin karriketan kartelak (horrela diote: Ikastola Munizipala legalizazioa eta kitto) baita/ ere pegatinak jarriz, etxetako kalerietan ohialaz Ikastolako egoera salatuz, eta abar. Igandetan eliza aintzinean pankarta bidez ere salatzen dute Baztango Udaletxeko U.P.N.ek badaraman politika Euskarari buruz... Horrela daudela aferak, baztandarrek ikusten ari dira Euskararen aurka gogor jokatzen dutela jauntxo horiek, baina beurek ere ikusi dute Baztango Ikastolako gurasoek gogor eman dietela beren muturretan. Udaletxeko Alkateak badarama ea hilabete bat pasa, beren plenoak ate itxirik egiten dituela, ehun/ guraso pasak bertan bilera egiten dutela bitartean ezin irentsiz. Denetara jakin beharra dago, Baztango Ikastola munizipala dela eta hor dauzkala gaur bere etsairik haundienak. Ikastolan hau diote jakin dugunez: Jarraituko dugu beti beren aurrean, baita ere beren jokaerak salatu. Ikastola soluzio bila ari da eta hortarako borondatea behar da eta gainera nola jakin, erranak dioen bezala: "donde no hay mata no hay patata" eta hori ere gertatzen da hemen,/ bertzela nor diren beren laguntzaileak ikusi...

URRIKO FERIAK.- Erruz bildu zen jendea Elizondoko karriketan. Feri aitzakiak ere bildu zituen Iparraldeko gure barrideak, elkarrekin Baztan aldean badakite besta ederrak egiten eta. Multzoka etorri baziren nekazariak, saltzaileak ere hala. Jakin dugunez 160 mahai pasa izan ziren/ Elizondoko karriketan, "rastro" azoka batetan ea herri guztia bihurturik. Azienda ere bildu zen, ez lehen adina jakina, baina baita ere azienda inguruan hameka nekazari tresna. Deus ikustekotan han zuten baztandarrek zerikusi./ Saltzaileak saltzera etorri baziren, saldu ere egin omen... Larunbatean oino bertan jarraitzen zuten. Eguraldi ederra eta baztandar aunitz itzuli ere mahai bazterretara, feria luzatuz eta sakela murriztuz. Aitatxi zahar batek hala zioen: Ostirala gizon feria eta larunbata, atso feria... Ahaztua ginauken.



Lozorroan bazaude eta begiak zabaltzean
argi izpirik.
lore gorririk.
aize epelik.
ahots soinurik.
arnas lagungarririk
sumatzen ez baduzu
zertarako esanatu?
Egunero eta esnatzekin batera
«zertarako esnatu»?
galdezka ari bazera
eta
hala ere
egunero
goizero
esnatzero
jeikitzen ba zera
ez zaude okerrenean.
oraindik
zerbaiten zai zaude.
hori da okerrena.
Zai egoten ikasi
zai egoten erakutsi
zai
egotetik
atera
beharrean
zaude



Argiak iluntasuna betetzen badu
eta
egunak gauari deitzen baldin badio
eta
ustegabean
haize bolada batez
maratilak leihatila isten badizu,
guk ez dugu jakinen
zertan gelditzen zeran
egunaz edo gauaz,
lotan edo ernai,
zutik edo etzanik.
Baina jakin ezazu
zure leihatilen maratilak
inork ez ditula kenduko
inork ez baitu jakinan
zertan gelditzen zeran
egonean edo ezinegonean
eta
azken finean zuk zeorrek
hartu eta maratilak kendu beharko duzu
besteok nahita ere
ezin baidugu
leihatil itxi horretatik
ezer ere egin.

e.z.

despistatu baten

- Ama, buelltatxo bat ematera noa.
- Ederki Jon, baina erne ibili kaleak zeharkatzerakoan.
- Bai ama, agur ama.
- Hain zera despistatua ...
- Bai ama, agur ama.

Jontxok poz pozik aldegiten du eta adi-adi dabil kalearen lehen metroan. Noizean behinka gelditu eta bere gorputza ikuitzen du.

-Osorik ote nago? Bai, eta barre egiten du berekiko.

Hain dago pozik bere arretaz, txori baten modura saltoka hasten bait da. Baina segituan dendetako erakusle hoiei, hodeiei eta autoei zoraturik begira geratzen da eta hor hasten dira noski ezbeharrak.
Gizon batek errista egiten dio:

- Despistatua zara gero,eh ! begira ! esku bat galdu duzu dagoeneko.
- Ene ! egia da ! Oso despistatua naiz, oso !

Eskuaren bila hasten da baina pote huts bat aurkitzen du eta pentsatzen hasten da: " Erabat hutsik egongo ote da? Ikus dezagun. Eta hustu aurretik, zer ote zegoen barruan? Ez zen betidanik, lehengo egunetik hutsik egongo ... "

Jontxuri bere eskua bilatzea ahanzten zaio eta gero baita potea burutik joan ere, zakur herren bat ikusi baitu.Eta orduntxe, zakur herren hori harrapatu nahiean, kalearen ertzara igaro baino lehen beso osoa galdu du. Baina ez da konturatu ere egiten, badoa lasai korrika.
Andre batek dei egiten dio:

- Jon, Jon zure besoa!

Baina kita, ezta entzun ere.
- Zer eginen diogu ba! - ihardesten du hasperenka andreak-. Bere amari eramango diot.
Eta Jonen amaren etxeruntz abiatzen da.
- Hemen dakarkizut zure semetxoaren besoa .
- Ene! despistatu hori! ez dakit zer egin beharko dudan mutiko honekin.
- Jakina, haur guztiak horrelakoxe dira.

Geroxeago beste emakume bat etortzen da.
- Oin bat aurkitu dut. Ez ote da, akaso, zure semearena?
- Bai, berea da, zapatak duen zuloagatik ezagutzen dut. Ene! zein seme despistatua atera zaidan ! Ez dakit zer egin beharko dudan mutiko honekin .
- Jakina haur guztiak horrelakoxe dira.

bueltatxoa

Geroxeago amonatxo bat etortzen da, okinaren morroia, treneko langile bat eta baita andereño erretiratu bat, eta denek Jonen zatiren bat dakarte: hankaren bat, belarriren bat, sudurra ...
- Ba ahal leike nirea baino mutiko despistaturik?
- Lasai emakume! haur guztiak horrelakoxe dira.

Jon iristen da azkenean, hanka bakarraren gainean saltoka. Dagoeneko belarri eta besorik gabe, baina beti bezain alai, txori baten modura alai Bere amak burua alde batera eta bestera astinduz, dena bere lekuan jarri eta musu bat ematen dio.

- Zerbait falta al zait, ama? zintzo ibili al naiz, ama ?
- Bai Jon, oso zintzo ibili zara.

Amaia Otxandorena
(Zubieta)



NATURAREN ONDASUNA ARANTZAN

Guk, gauza asko jaten ditugu. Batez ere lataka gauzak eta abar. Guri balio ez zaizkigun zikinkeri guztiak baldeetara botatzen ditugu. Han mukuroa egitean, denak hartu eta ateka eta horrelako tokitara botatzen ditugu. Pentsatzen dugu horrelako tokitara bidali ezkero ez dugula geure burua kaltetik egiten, baina, hau ez da honela. Gero hasten gara bainatzen errekan eta zikinkeriakin ezin, dugu, edo, gure aitak hasten dire arrantzan eta haserre etortzen dire, ez dutela amuarrainik harrapatzen, berriz ere nola etorriko dire amuarainak? Gizajoek pentsatuko dute hau zerrikeri bat dela. Nik ez dakit zer egin hau ez gertatzeko, baina honela jarraitzen badugu, hau ez da ongi aterriko.

Zuhaitzekin berdin gertatzen da. Denak kentzen hari gara, adibidez, gartainondoak, intramurondoak, haritzondoak eta pinuak paratzen ditugu. Baina pinuak ez dire onak Arantzako lurrarentzat. Pinuak paratzen ditugu errexago haunditzen direlako; berriztik gartainondo, eta horiei gehiago gustatzen zaie. Nik esaten dut: Zer, esango du Arantzako lurrak hemendik urte batzuetara? Zuhaitzak ez dute kulparik, oso politak eta ederrak izaten direlako, baina...

Txoriak ederki hegaka dabiltzalarik hil egiten ditugu. Zergatik hori? Askotan guk botatzen ditugun zikinkeriak garbitu egiten dituzte. Esaten dugu, gu jendeak oso jakintsuak garela, baina gauza asko ongi pentsatu behar ditugu. Zergatik, ez dugu pentsatzen pixka bat eta zuzentzen ditugu egiten ditugun zikinkeri horiek?

Mª Pilar Lizardi Etxandorena

EZIN APARKATU

Madrilgo Moncloako jauregiaren aurrean utzi nahi zuen autoa gure gizonak. Goardia etorri zitzaion.

— Barkatu baina laster ministroak irtengo dira eta ezin dezakezu hemen utzi zure kotxea.
— Berdin da, gizona, herenegun jarri nion antirroboa.

MUNDUA JIRAKA

Gizon bat dago zeharo jota, eskaparate bateko koskan eserita. Igerri zaio, begiratuan, kristoren makailua daramala. Batera eta bestera ari da begira, etengabe, buruaz imintzio dotoreak eginaz, burua mugitu eta burua mugitu.

Oinez pasa den bat geratu zaio.

— Zer duzu, gizona, alde guztietara begira?
— Ea gure etxea pasatzen den ikusten dugun.
— Zure etxea pasatzen? Zer dela eta?
— Fai, motell! Ez al dute bada esaten munduag bueldag ematen dituela?



TTIPI-TTAPA

125 pzta.